

Psilocybe: Onddoaren mizelioak herritik mundura hedatzen direnean

(Psilocybe: A fungi's mycelium spreads from a town to the rest of the world)

Alcaraz Franganillo, Egoitz
Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Filosofia eta Zientzien Fak.
Tolosa hiribidea, 70. 20018 Donostia
egoitzalcaraz60@hotmail.com

Jaso: 14.11.2012
BIBLID [ISSN: 1137-4470, eISSN: 2174-551X (2013), 20; 73-95] Onartu: 13.07.2013

Psilocybe elkarteak Hondarribiko rock taldeentzako lokalak bilatzeko asmoarekin jaio zen baina bere ibilbidea ez zen han bukatu. Gaur egun, elkarteak, Hondarribiko rock taldeentzako entsegurako gune bat kudeatzeaz gain, irrati, estudio, diskoetxe eta kontzertu areto bat kudeatzen ditu. Hau guztia gauzatzeko ez da bakarrik gizakien lana behar, beste eragile bizigabeekin sortutako harremanen sarea ere behar da.

Giltza-Hitzak: Musika. Sare-eragile. Artekari. Mihizadura. Harremana.

La asociación *Psilocybe* nació con la intención de buscar locales de ensayo para los grupos de rock de Hondarribia, pero su actividad no finalizó con la consecución de ese objetivo. Actualmente, la asociación al margen de gestionar unos locales de ensayo para los grupos de rock de Hondarribia, gestiona también una emisora de radio, una discográfica, un estudio y una sala de conciertos. Para materializar todo esto no sólo es necesaria la actividad de los humanos, es necesaria una red creada a partir de la relación establecida con agentes no humanos.

Palabras Clave: Música. Actor-red. Intermediario. Ensamblaje. Relación.

L'association *Psilocybe* fut créée pour trouver des locaux pour les groupes de rock d'Hondarribia, mais son activité ne s'arrêta pas avec la réalisation de cet objectif. Actuellement, l'association, en plus de gérer quelques lieux de répétition pour les groupes de rock d'Hondarribia, s'occupe également d'un émetteur de radio, d'un label, d'un studio et d'une salle de concerts. Pour mener à bien tout ceci, le travail des gens n'est pas suffisant, on a besoin d'un ensemble de structures animées en réseau.

Mots-Clés : Musique. Acteur-réseau. Intermédiaire. Assemblage. Relation.

1. SARRERA

Psilocybe elkarteak aukeratzea eta musika mota bat edo herri bateko musika tradizio bat aukeratu ez izanaren arrazoia, elkarte baten azterketak eta kasu honetan elkarte gazte baten azterketak, musika sorkuntzaren hasiera puntua inolako errealtate musikala eratu bat aintzat hartu gabe ikerketa ahalbidetzen nauela izan da. Honek suposatzen du musika ikerketaren gidoi nagusian ez dauden elementuak ikertu eta lotu behar izatea.

Ikerketa honen helburua ez da musikaren fenomeno sozialki aztertzea, horrek musika aztertzen duten zientzia guztiek eskainitako musikarekiko definizioak baztertzea suposatzen duelarik, nire helburua ordea, musika fenomenoaren izaera azalduko dut, baina ez soziologo bezala, musikaren eraikuntzan parte hartzen duten eragileek musikatzat eraikitzen dutenaren arabera. Lan hau burutzeko beharrezkoa ikusten dut kolektibo baten ekintza aztertzea, non aztertu ditzakedan kolektibo honen eragileek bere ekintzan eta harremanetan utzitako aztarnak, harreman hauek utzitako hondakinak ontzat eman gabe.

Kolektibo horren parte izateak, bai orain eta iraganean, elkarteak nola eraikitzen diren, eragileen arteko harremanak nola suertatzen diren eta musika eraikuntza ahalbidetzen duten eta nola aldi berean kolektibo horren parte diren, ikustea ahalbidetzen nau.

Era berean, 20.000 biztanle baino gutxiago dituen herri batean kokatutako elkarte bat aztertzeak globala eta lokalaren arteko, bai mikro eta makroaren arteko dikotomia hori baztertzeko aukera eskainiko dit. Herri testuinguru batean kokatutako musika ekintza bati buruz hitz egin arren, eragileen pentsamolde gehienak beraiekin inolako loturarik eta hauengan inolako kontrolik ez duten toki eta agentzietatik datoz. Bestalde ikus dezakegu nola ekintza lokal horiek testuinguru global batean ematen diren eta nola gehiengotan musikagintzari zuzenean lotutako ekintzak diren. Latour-ek dioen bezala:

[...] emandako edozein elkarrekintzak dagoen egoeran egonda ere, beste *eragile* batek sortutakoak eta beste *momentu* eta beste *leku* batetik eratorriak diren elementuez *gaindituta* dagoela adieraztea guztiz zilegi da.

[...] Modu honetan ikus dezakegu musika komunitate baten praktika komuna dela, musikologoen sortutako abstrakzioa eta talde bateko partaideen elkarrekin-tzan momentuan ematen den asmakizuna (Latour, 2005: 238).

Hori dela eta, erabilitako metodologia eta ikuspegi teorikoak, ez dira soziologia klasikotik erabilitakoak izan, nire helburua ez baitzen fenomeno batek dituen ondorioak azaltzea, fenomeno bera baizik. Horretarako beharrezkoa da, fenomenoaren sortu duen harreman sarea aztertzea eta ez fenomenoak izan dituen ondorioak aztertzea. Kausa-efektu ardatza jarraituko banu, fenomenoaren azalpenerako garrantzitsuak diren hainbat eragile azaldu gabe geldituko lirake eta nolabait ere eragile horien arteko harremanean sortutako zenbait ondorio. Ikuspegi soziologiko klasiko batetik aztertuz gero ondorio gehienak iragarri genitzake, baina eragileen artean ematen diren

harremanak aztertzen baditugu, iragarri ez daitezken ondorio asko aurkitu ditzakegu. Nire asmoa eragilek egiten dutena aztertzea da, hori baita errealitatea hoberen islatzen duen irudia. Hauen aztarna jarraituta aztertu dezaket hauek sortzen duten sarea. Azken finean musika Sare-eragile¹ bat da, beraz eragilea (musikaria) eta hau txertatuta dagoen sarea (musika) kontuan hartu behar ditugu, azken finean, musikariek musika sortzen duten heinean, musikak musikari bezala sortzen dituelako. Musika-kolektiboak, eragile-musikariak sortzen ditu eta aldi berean, hauek dira *feedback* prozesu baten bitartez musika kolektiboa sortzen dutenak.

Metodologikoki horrek eragileek egiten dutena aztertu behar dudala suposatzen du. Hori aztertzeko eragileei galdetzea erabilgarria izan daiteke, baina eragile guztiak ez dira bizidunak, objektuek ere eragiten dute eta hauei ezin zaie galdetu ez baitute erantzungo. Arrazoi horregatik elkarriketa pertsonalak eta behaketa parte-hartzailea tartekatu ditut, eragile bizidunak eta bizigabeak egiten dutena aztertu ahal izateko.

2. NON SORTZEN DIRA MUSIKARIAK?

Musikariak ez dira Adorno-k aipatzen zituen jenioak, edo ez behintzat gaur egungo musikariak. Adorno-rentzat oraingo musikariak “hedabideek sortutako irudi pobreak dira” (Adorno, 2009: 106). Baina nahiz eta musikari horiek Adorno-ren gustukoak ez izan eta nahiz eta musikari berri hauek hedabide masiboek eskainitako produktuen kontsumoan oinarritu beraien musika praktikak, musikariak dira. Beharbada musikari hauek ez dira partitura batean nota bat idazteko gai izango baina kontsumitutako musika imitatuz eta soinuak birproduzituz musikari bihurtu dira, musika sortzeko gai baitira. Adorno-k uste duenaren kontra, “musika idazteko gaitasuna ez da musika sortzeko baldintza” (Small, 1994: 230).

2.1. Entzun al duzu abesti hau?

Musika entzutea ordea, bai da musika sortzeko aurrebaldintza bat. Eta gaur egun, Mendebaldeko hiri eta herri gehienetan estatus nagusia hartu duen musika, *pop* musika da. Horrela izanda Hondarribiko kasuan behintzat.

Musika hau esku batzuetatik besteetara pasa izan da hainbat formatutan: lagunen artean diskoak eta taldeak gomendatuz, diskoak utziaz, irratitik ezagutuz, etab; “gustuaren autoritate” bilakatu diren eragile musikal horien eskutik. Hauen gomendioek musikari potentzial horiek kultura kapital bat pilatu zezaten eragin dute, musikari potentzial hauek bere gustu propioa sortu zezaten lagunduz. “Inportazio gustuak” (Grignon eta Passeron, 1992: 46) garatu dituzte, beraien kultura tradizioetik kanpo dauden gustuak garatu dituzte, beste eragile musikal horiekin mantendutako harremanaren ondorioz.

1. *Actor-network* ingelerako kontzeptuaren itzulpena. Latour-ek garatutako Sare-eragilearen teorian (*Actor-network theory*) oinarritu naiz ikerketa hau burutzeko.

Honi lotuta dago musika aparailuen agerpena eta hauen presentzia Mendebaldeko herrialdeetako etxe gehienetan. XX. mendearen bukaeran klaseen arteko ezberdintasunak malgutzen joan ziren eta klase ertaina nagusitzen hasi zen. Klase ertainentzako produktuak era masiboan ekoizten hasi zen merkatua eta horien artean nagusietako bat musika aparailuak izan ziren. Honi ere lotu behar diogu, batez ere Hondarribiaren kasuan, nekazal eta arrantzari lotutako gizarte bat izatetik, gizarte moderno bat izatera pasa zela. “Horrek eragin nabarmena izan zuen bizimoduaren eta bizi baldintzen berdintzean eta estandarizazioan” (Grignon eta Passeron, 1992: 50). Ekoizpen masiboko produktuen kontsumoak, hauen artean musika aparailuen eta irrati aparailuena, klaseen arteko desberdintasunak desegin zituen. Egia da ere, Bourdieu-ek dioen bezala, “eskola kapitalak, eta honi lotuta dagoen kapital ekonomikoak, eragin handia dutela musika gustuetan, baita musika entzuteko aparailu baten jabe izateko aukeran” (Bourdieu, 1999: 12). Baina lehen aipatu bezala klase ertainaren zabalkundeak, Hondarribiko biztanleriaren, eskola kapitala, kapital kulturala eta ekonomikoa berdindu zituen, batez ere gazteen artean. Horrek musika kontsumorako gaitasuna handitu zuen eta honekin batera musikari potentzialen kopurua.

Guzti honek eragin nabarmena izan du XX. mende bukaerako Euskal Herriko gazteriek musika berriak kontsumitzerako orduan egindako hautuan. Nahiz eta Adornoren ustez, musika birproduzitzen duten aparailuek musika ekoizpena murriztu, hauen kontsumoaren emaitza kontrakoa izan da. Paul Willis-ek Britainia Handian egindako ikerketak dioen bezala, “zenbat eta jende gehiagok musika kopuru handiagoa kontsumitu, musikari gehiago agertzeko aukera handiagoa da” (Willis, 1990: 19). Hau izan da Psilocybe elkartearen eta bere kideen kasuan gertatutakoa.

E.1.A²: [...] Nire anaiak musika entzuten zuelako eta nik musika entzuten nuelako eta musika asko elkartrukatzen zen, nik musika guztia irensten nuen. Nire anaia bateria jotzen ikasten ari zen eta ez zeukan bateriarik eta ez dakit zergatik nik esan nuen nik baxua jotzen ikasiko nuela [...].

Diskoak³, kontsumorako ekoiztutako produktu horrek, bere mugak gainditu ditu eta musika sorkuntzaren eragile bihurtu da. Bere funtzioa jada ez da entretenitzea, baizik eta musika ekoizpenaren eragile izatea. Hennion-ek dioen bezala: “Diskoa musikaren kanpo euskarri izatetik musika ekoizle garrantzitsuenetako bat izatera pasa da” (Hennion, 2002: 350).

Baina entzumena ez da pertsona bat musikari izatera bultzatzen duen arrazoi bakarra, ikusmenak ere eragin handia izan du. Rock musikariek islatzen duten itxura, musika bideoek erakusten dituzten munduak eta kontzertuetan sortzen diren epifaniek, ikusle eta entzule asko musikari izatera bultzatu dituzte.

2. Elkarrizketa zenbakien ondoren agertzen den hizkia, elkarrizketatuen izenaren inisiala da.

3. Bere formatu fisikoan zein digitalean.

E.2.E: [...] niri musika gustatzen zitzaidan eta nire buruari galdetzen nion: “nola doa hau?”. Jendeak ondo pasatzen du musika egiterako orduan eta nik entzuten ondo pasatzen badut, musika egitea eta jendeari gustatzea kristona izan behar du. Ikertzen hasi nintzen, informazioa biltzen eta ohartu nintzen ez zela horren zaila [...].

Horrela adierazten du Hennion-ek ere, *Rock* ikuslegoa musika klasikoaren ikuslegoarekin konparatzen duenean:

Rock-ak ikuslea eszenatokira igotzera bultzatzen du, sakrifizioaren eszenan erakusten den izar komunaren dolean bihurtuz gizabanako bakoitza. Operak kontrako funtzionamendua du, gorputzetik kanporatzearen erauzketa diziplina baten bitartez [...] (Hennion, 2002: 317).

Azken finean, *Rock* kontzertuan ikuslea musikarekin identifikatzen da, bera ere kontzertuaren parte sentitzen da. Ikuskizunaren parte sentitzeko aukera horrek eragin handia izan du musika honekiko gazteek izan duten hurbilpenean. Musika klasikoak edo herri musikak ordea, ez dira gazteen-tzako horren erakargarriak izan, alde batetik beraien gurasoen gustuko musikak zirelako eta ez direlako gazte hauentzako horren eskuragarriak izan. Bourdieu-ek dioen bezala, “ikuskizun popularrak, modu berezi ezin batean, ikuslearen parte hartze indibiduala ikuskizunean eta parte hartze kolektiboa ikuskizuna bera den jai horretan uztartzen ditu” (Bourdieu, 1999: 32). Honek eragin handia izan du *Psilocybe* bezalako elkarte sorkuntzan, azken finean ikuskizunaren zati izateaz gain, ikuskizunaren sortzaile izan nahi baitzuten elkarte sortu zuten kideek.

Pop musika, morroi beltzaranek ekoiztutako musika etnikotik eratorria da. Hauentzako musika ez zen sarbide mugatuko artelan bat, baizik eta sentimenduak adierazteko modua, egunerokotasuna ulertzeko eta azaltzeko modua, eta parte hartzera bultzatzen duen ekintza. *Pop* musikak dirudenez morroi beltzaranek musika ulertzeko modua bereganatu zuen, musika berdinen arteko harremanak bezala ulertuaz. Harreman horietan ikusleak eta entzuleak ez ziren subjektu pasiboak, objektuekin harremanean eta artekari-rien laguntzaz eragile aktibo bihurtzen ziren. Harreman horiek dena posible bihurtzen zuten musikan eta jadanik ez zen musikari⁴ izan behar musika egiteko. Musika egin nahia nahikoa zen. Hortik sortu zen *Punk* musikak famatu bihurtu zuen leloa: *do it yourself*.

2.2. Talde bat egingo dugu?

Punk-ak bere aztarna utzi zuen Euskal Herrian eta nahiz eta honek eragina izan Hondarribiko musikaren sorkuntzan, Hondarribiko musika eszenak beranduago egin zuen eztanda. Horrek ez du esan nahi *Punk*ak utzitako arrastoa ez dela igartzen, baizik eta utzitako aztarna ez dagokiola musika estiloari baizik eta jarrerari. Musika egiteko ez da musikari profesionala edo

4. Musikari hitzak kasu honetan musika mintzairan hezita den pertsona esan nahi du.

musikan hezia izan behar, musika egiteko gogoak besterik ez da behar. Azken finean, hori baita *do it yourself* leloak adierazi nahi duena.

E.3.G: [...] *do it yourself* -aren kultura oso presente zegoen Psilocybe sortu zuten artean. Egia da baliabide eta aukera ekonomikoak handiagoak zirela, baina gure indarra egiten genuenean benetan sinestean zetzan. Musika egin nahi genuen eta argi genuen egiten ari ginena gauza handi bat zela [...].

Norberak egitea inolako laguntzarik gabe egitea suposatzen zuen; ez ekonomikoki, ez gurasoen aldetik, ez erakundeen aldetik, ezta Hondarribiko beste biztanleen eskutik ere. Baina artekari hauen ezezkoak elkartea erakitzeke eta musika sortzeko gogoak pizten zizkien gazte horiei. Era berean, norberak egiteak suposatzen zuen baliabide urriekin musika egiten saiatzea, ez baitzuten instrumentu egokiak erosteko aukerarik. Honen ondorioz, musika egiteko objektu eta subjektu ezberdinekin harremanak izatera bultzatuak izan ziren gazte hauek.

Bidea erreza zen, norbaitek musika sortu nahi bazuen beste eragileekin elkartu beharra zuen, ezin zuen bakarrik egin. Gainera *rock*-a egin nahi izanez gero, ahalik eta eragile kopuru handienarekin elkartzea beharrezkoa da. Lehen pausua soinuarekin esperimentatzea izango da, horretarako gazteek, behin beraien gustu musikalak eraiki dituztela, zein instrumentu jo erabakiko dute. Instrumentu horrekin elkartzean eta honekin gaitasunak trukatzean, bion arteko loturaren bitartez izaki berri bat eraikitzean, orduan agertuko da musikaria. Esperimentatzea beharrezkoa da beraz, momentu horretan gauzatzen baita gizakiaren eta bere kide ez bizidunaren arteko harreman soziala. “Entitate hauen arteko elkartzea eratzen denean, elkartzen diren moduarengatik eta sortzen dituzten forma berriengatik ezagutzen direnean, une bateko elkarte forma berri bat sortzen da” (Latour, 2005: 98). Forma hori musikaria izango da.

E.4.A.1: Jotzera bultzatu ninduen, jotzeko aukera izan zen, modu esperimental batean [...].

Azken finean *rock*aren agerpena esperimentatzeko aukeran datza, beste zenbait musika motak dituzten arauak gaindituz. Musika mota hauetan subjektuari kode musikal bat ikastera behartzen zaio, instrumentu bat hartu baino lehen, baina *rock*aren kasuan ez da horrela, *rock*a ez da gramatikalki hain zuzena, “ez dago behartuta notak kutxatila egokietan jartzera” (Blacking, 2006: 53).

Nahiz eta denborarekin *rock*a gramatika hori erabiltzera ohitu, *rock*a ez dago gramatikaren defendatzaileei zuzendua baizik eta kode horretan heziak izan ez direnei zuzendua. Honen arrakasta kode hori erabili gabe musika sortzeko aukeran oinarritzen da, esperimentaziotik hasita soinuen imitazioaren bitartez musika sortuz. Ikasteko modu autodidakta bat, *do it yourself*-aren aldarrikapen politikoan oinarritutakoa.

Ikasteko modu autodidakta hori, Psilocybe elkarteko musikari batzuen kasuan, norberak bere instrumentua eraikitzea suposatzen zuen, bat eros-

teko aukerarik ez baitzegoen. Musika egiteko gaitasuna izan baino lehen musikarekin esperimentatzeko gaitasuna garatu behar da, baina soinua egiteko gaitasuna eta esperimentatzeko instrumentu baten faltan, bat eraiki beharra dago. Material ezberdinekin harremanean, norbera ahalik eta sonoritate hobereana lortzen saiatzen da. John Cage-k zioen bezala: “[...] entzun daitezken soinu guztiak helburu musikalen zerbitzura jarri beharko dira. Bitartekari foto-elektrokoak, magnetikoak eta mekanikoak, musikaren ekoizpen sintetikorako baliatuz” (Cage, 1999: 53).

Esperimentazioaren bitartez, “laborategian” eta material ezberdinekin harremanean, instrumentuak eraikiko dituzte Psilocybeko musikariek. Era berean sortu ziren XVIII. eta XIX. mendeetako instrumentuak, baina Psilocybeko kideen kasuan, helburua ez da izango instrumentu berriak sortzea, baizik eta erosi ez daitezken horiek imitatzea.

E.5J: [...] orduan, gutxika bateriarengatik interesatzen hasi nintzen eta beranduago bateria bat eraiki nuen. Beranduago bat erosi nuen [...].

Baina nahiz eta norberak bere kabuz soinuekin esperimentatzeko aukera izan, *rock*ak orokorrean kolektibitate baten partaidetza eskatzen du, elkartze maila bat eskatzen du. Gizartetzat ezagutzen dugunarekin gertatzen den bezala, beharrezkoa da taldeak sortzea. “Baina ez ditugu taldeak entitate iraunkorrak bezala ulertu behar, artekariaren denboraldirako elkarte bezala ordea, errekrutatze arduradun baten beharra duen elkarte tenporal bezala” (Latour, 2005: 53).

Elkarte txiki horiek, errekrutatze arduradunetz gain, talde formazioarako esfortzu baten eskuz eskainitako etengabeko mantenua behar dute. Ez du importa talde horiek nolako ospea lortuko duten, ezta hauek izan dezaketen arrakasta. Taldeak soilik iraungo du bere kideek bere existentzia mantentzeko esfortzua egiten badute, existentzia hau beti baita iragankorra. Talde baten existentzia iraunkor bihurtu dezaketen baldintza bakarra “*kaxabeltz*”⁵ (Latour, 2005) batean bihurtzea izango da, talde bati egozten zaion obra bat *kaxabeltz* bihurtzea. Baina hori prestidigitazio ariketa bat besterik ez da, *kaxabeltz* horrek taldea existitu dela adierazten baitigu soilik, baina ez existitzen jarraitzen duela.

Baina nola eratzen dira talde horiek? Nondik dator talde bat sortzeko beharra? Erantzuna erraza da eta musikaren izateari atxikita dago. Musika egiteko gogoarekin elkartu beharra dago, artekari askok lanean jardun behar dute musika entzun dadin. Behar hori modu nabarmenagoan ematen da taldeen hasierako pausuetan. Ikusi dugun bezala, artekari instrumentuekin elkartzea zaila suertatzen bazaio musika egin nahi duen gazteari, are zailagoa eggingo zaio musika egin nahi duten pertsonekin elkartzea. Baina elkartze honek, soinuarekin esperimentatzeko aukerak zabaltzen ditu eta entzumen

5. *Kaxabeltz* bat, bere eraikuntzan parte hartutako eragile guztiak ezkututzen dituen objektua da. *Rock* musikariaren kasuan, diskoa izango da *kaxabeltza*.

aktiboarekin hasitako imitazio prozesua osatzen laguntzen du, soinu ezberdinak aldebereko soinu sekuentzia batean eratzea lortuz.

E.6.K: [...] gitarra bat erosten duenak bere laguna baxu bat erostera bultzatzen du, honek beste lagun bat batera bat erostera bultzatuz [...].

Errekrutatze arduraduna taldea osatzeko beharra ikusten duena izango da. Entitate musikaren gida uhalak eramango dituena eta era berean taldeari egonkortasuna emango diona, taldeak ahalik eta ospe gehiena lortu dezan eta ospe hori mantendu dezan saiatuz. Baina betebeharrak ez dago bakarrik bere esku, baizik eta instrumentuen eta harremanak eraiki dituzten artekariaren esku. Taldeak desagertu egiten dira jotzeari uzten diotenean, soinua egiteari uzten diotenean, performatzeari uzten diotenean. Beste aktore batzuek lekukoa hartzen badute iraungo du soilik. Taldea ez baita gizakiek osatutako taldea, artekariak osatutako taldea baizik, musikariak osatutakoa, gizakiek eta instrumentuz osatutakoa.

Baina behin taldea osatua dagoela, zer joko du? Nola sortzen dira interpretazio musikal horiek? Ez dira soinuak bakarrik imitatuz sortuko, baizik eta obra osoak imitatuz sortuko dira.

Psilocybe elkarteko talde gehienak beste taldeen bertsioak egiten hasi dira. Helburua ez da musika-lanak imitatu nahi izatea, baizik eta ikasteko modu bat delako eta norberak sortu nahi duen musika garatzeko era bezala ulertzen dutelako. Eraikitakoaren gainean eraikitzen da, plagio sortzaile⁶ baten modura. Entzundakoa imitatuz kodea ikasten da eta modu horretan lortzen da musika ekoizteko behar den teknika, ikasitako pieza musikalei soinuak gehituz eta kenduz. Instrumentuak musikariari berriari erakutsiko dio entzundako hori jo nahi badu nola erabili behar duen, aldi berean musikaria berriak aginduko dio instrumentuari zein soinu atera behar duen. Biak adostasun batera heltzen direnean, biok nahi duten soinua aterako da.

Behin erabakita zein talde-mihiztadura mota izango den, entseatzeko toki bat beharrezkoa suertatuko da, soinu horiek imitatzeko eta soinu horiek imitatuz berriak sortzeko lokal bat beharrezkoa baita. Artekari modura jardungo duen lokal bat bilatuko da, bere oztopoak ezarriko dituena talde eraikuntza prozesuan eta honen iraunkortasunean eraginez.

Munduko beste gazte askoren antzera, Hondarribiko gazteek, beraien musika ibilbidean lehen pausoak emateko lokal baten beharra dute, beraien gurasoen garajeak, ganbarak edo xaiak ez baitira guztiz egokiak. Bizilagunak kexatu egiten dira, entsegua amaitu ondoren gauza eta instrumentu guztiak jaso behar dira, etab. Lokal hauek, artekari modura, oztopoak jartzen dituzte musika egiteko prozesuan eta hauen aurrean musikari-mihiztadurek eta talde-mihiztadurek elkartzea erabakiko dute.

6. Plagio sortzaileaz ari garenean, musikariak entzundako musikaren erabilpenaz ari gara. Entzundako musika datu base baten modura erabiltzen dute musika berria sortzeko. Musika ezberdinak birkonbinatuz testu berriak sortzen dituzte.

3. PSILOCYBE

3.1. Aurrekariak

Kasu gehienetan talde-mihiztadura horiek konformatu egiten dira lehen aipatutako lokal horiekin, beste zerbait hobeagoa aurkitu arte behintzat. Baina kasu batzuetan, Hondarribiko kasuan, zerbait hobeagoaren bila joatea erabaki zuten.

XX. mende bukaeran zenbait talde-mihiztadura azaltzen hasiko dira Hondarribian. Hauek identifikatzea erreza zen, ohikoa baitzen beraien instrumentuekin ikustea beraien lokal, garaje edo xaietarako bidean. Baina are errazagoa zen, Saindua (Hondarribiko) gaztetxean topatzea, bertan ezarri baitzuten beraien "egoitza" herriko zenbait gazte taldek. Gaztetxean aurkitu zitezkeen antzerki taldeak, alderdi politikoen gaztediak, etab. Gazte talde guzti hauentzako operazio zentro bat zen. Nolabait edozein aktibitate politiko-kulturala zuten taldeen egoitza zen, eta era berean kontzertu aretoaren, argazki laborategiaren, zinemaren, etab., funtzioa bete zezakeen. Nahiz eta jabetza udalarena izan, kudeaketa hainbat talderen artean konpartitzen zen, eta udalaren oniritziarekin beti kontatu ez arren, beraien ekintzak bertan burutzen zituzten taldeek nolabaiteko oreka aurkitu zuten.

Espazio hori zenbait urteetan zehar kudeatu zuten, beti ere zenbait tira-birarekin, baina beti gazteriak elkartzeko leku bat izan zezan saiatur. Behar bada hau izan zen beraien akatsa, edozein gazte sartu zedin uztea eta berea zela eta edozein gauza egin zezakeela uste-araztea. Permisibitate horrek eragin handia izan zuen zenbait droga saltzailek beraien merkaturia han kokatzearekin. Udalak han lan egiten zuten talde guztiak kanporatzeko aitzakiazat erabili zuen egoera hori. Etxeak zenbait konponketa behar zituenaren aitzakiarekin, bertan lan egiten zuten taldeei etxea uzteko eta beraien gauzak jasotzeko eskatu zien. Behin lanak bukatuta zeudela, udalak berak espazio horren kudeaketa hartu zuen bere gain eta espazioari izena ere aldatu egin zion. Jadanik ez zen inoiz gehiago gaztetxea izango, hortik aurrera gazte-lekua izango zen eta bertan udalaren aginduak bete behar ziren.

Hala eta guztiz ere, espazio horrek musikari-mihiztadurek eta talde-mihiztadurek loturak ezartzeko berebiziko funtzio ezberdinak bete zituen. Beste askoren artean, espazio horrek, musika entzun, jo eta ikusi nahi zuten horiek espazio berean biltzeko funtzioa bete zuen. Bere aktibitatea jende hau elkartzean eta musika entzungarri eta ikusgarri egitean oinarritzen zen. Musika entzun nahi zuten gazteek, beraien gurasoen gustukoa ez zen eta tradizionala ez zen musika entzutera Sainduara joaten ziren. Gune horretan musika berriak ezagutzeaz gain, beste musikari potentzialak ezagutzeko aukera aurkitzen zuten. Talde mihiztaduretan errekrutatzaile bat aurkitu genezaken modura, talde mihiztadura ezberdinak egonkortzeko espazio baten behar konpartituak, errekrutatzaile figura berrien jaiotza erakarri zuen. Artekari-musikariak errekrutatuz, talde mihiztadurak sortzeko, entitate handiago bat sortzea zen helburua. Artekarien elkarte bat. Espazio horretan hasi ziren

elkartearen proiektua garatzen, espazio hori izan zen talde mihiztaduren errekrutatzailea. Nahiz eta tabernek ere funtzio horiek betetzen lagundu.

E.6.K: [...] Sainduako gaztetxea gure bilgunea eta gure kontzertu aretoa zen. Bertan kontzertuak antolatzen genituen kanpoko taldeekin. Hondarribia eta bere gaztetxea rock musikaren zirkuituaren parte ziren eta taldeek ez zuten horrenbeste diru eskatzen jotzeagatik [...].

3.2. Onddoa

Gaztetxean hasi zen eratzen elkarteak, bertan biltzen baitziren herriko talde mihiztadura guztiak, eta hauek guztiak arazo berdinei aurre egin behar zieten: entsegurako espazio baten gabezia, instrumentuak lapurtzearen beldurrik gabe hauek uzteko toki baten falta, etab. Han elkartuta eta arazo guzti hauek eztabaidatu ondoren udalari entsegurako lokalak eskatzea erabaki zuten. 1993. urtea zen eta ordurako herriak ospeko zenbait musika talderekin kontaktatzen zuten. Talde horiek hasiera batean *Hondarribiko Rock taldeen elkarte* izena hartu zuten. Beranduago *Psilocybe*⁷ izenaren ordean aldatu zuten, beraiek argitaratutako izen bereko fanzine batetik hartutako izena zelarik. Ordurako beraien txosna⁸ propioa, Psilocybe izenarekin, antolatzen hasiak ziren herriko jaietan dirua biltzeko. Baina benetan lortu nahi zutena udalak entsegurako lokal batzuk egokitzea zen, eta horrela jakinarazi zioten udal erakundeari.

E.5.J: Psilocybe existitu baino lehen zenbait lagun lokalak eskatzen hasiak ginen, baina paretarekin hitz egiten egongo bagina zirudien. Ez ziguten inolako kasurik egiten, dirurik ez zegoela jartzen zuten aitzakiazat eta ez gintuzten ekintza kultural modura ikusten.

Talde horren lehentasuna ez zen elkarte bat sortzea, lokalak lortzea baizik, baina udalak ez zuten amore ematen. Ordurako zenbait taldek disko konpartitu bat grabatua zuten nahiko harrera onarekin, beste talde batzuk inguruko irrati kateek antolatutako rock taldeen lehiaketak irabazi zituzten eta herriko talde batek Getxoko nazioarteko folk jaialdian parte hartzera gonbidatua izan zen. Nahiz eta talde hauen ospea geroz eta nabarmenago izan, udalak mesfidati jarraitzen zuten oraindik.

E.7.A.2: [...] Uste genuen arazoak sortuko zituztela [...] duela 14 urte, hasi zirenean, nahiko izaki arrarotzat jotzen genituen, lehen aipatu dizudan bezala, arazoak sortu zitzaizkela uste genuen. Pertsona marjinal modura ikusten genituen, drogazaletzat hartuak izan zitezkeen.

7. Psilocybeak ondo aluzinogenoak dira eta elkarteak sortu zen garaian kopuru handian hazten ziren Jaizkibeleko magalean. Elkarteak sortu zuten artean nahiko kontsumituak zirenez, pentsatu zuten izen on bat izan zitekeela elkarterako.

8. Txosnak, herriko jaietan jartzen diren denbora mugaturako tabernak dira.

Talde horietako batzuen arrakasta ekidinezina izatera heldu zen, eta talde horien eskaera etengabeek udalaren jarrera aldatzea lortu zuten. Mugimendua onartu zuten, baina baldintza batzuk ezarriz. Udalari zerbait eskatu nahi bazioten elkarte gisa eratu behar ziren. Beraz elkarte gisa erakundetu ziren, baina erakundetze hori ez zen bakarkako lana izan, hainbat erakunderekin izandako harremanek sortutako erakundetzea izan zen.

Behin elkarte erakundetu zela, udalak onartu zuen eskola zahar baten zati bat uztea taldeei. Eraikin hau nahiz eta urrun egon, taldeen beharrak betetzen zituen. Baina espazio hori ez zen espazio musikal bat, musikalitatez hornitu behar zen. Espazio solidoa zena fluxu espazio bihurtu behar zen, hau da, arkitektura berak markatzen zituen funtzioetara mugatu beharrean, gazteek behar zuten alde musikalak kontuan hartu behar zituen espazio bat egokitu behar zuten, baina ez modu iraunkor batean, baizik eta beharren arabera fluxuan. García Selgas-ek dioen bezala: “espazioen arteko fluxutasunak arau orokorrak ekiditeari eta espazioaren erabiltzaileek betetzen dituzten eta beraien bizitza osatzen duten ekintza ezberdin, ez normalizatu eta konkretutara egokitzea” (García Selgas, 2007: 39).

Beste eragileekin gertatzen den bezala, udalak eskainitako espazioa ez zen bitartekari soil bat izan, artekaria baizik. Ez zen entsegurako espazioa soilik, talde mihiztaduren erreklutatzailean bilakatu zen.

E.8.A.3: Taldeak zeudelako eratu zen, baina gero, momentu zehatz batean, buelta eman zaio horri eta Psilocybe izanda taldeak egotea lortu duena.

Elkarte eta hau hartzen zuen eraikuntza, funtzio berriak hartu zituen eta laborategian bilakatu zen. Hondarribitik mundura eta mundutik Hondarribirako bidean musika ekoiztuz.

3.3. Mizelioak⁹ zabaltzen hasten dira

Behin erakundea sortu zela eta eraikina beraien eskuetan zegoela, entseatzea ez zen arazoa, jotzea bai ordea.

3.3.1. Kontzertuak

Psilocybe osatu zuten kideek, jadanik bazuten kontzertuak egiteko espazio bat, Hondarribiko gaztetxea zena. Bertan, herriko taldeek zein kanpoko taldeek jotzen zuten, baina lekua kontzertuetarako aproposa ez izateaz gain, denborarekin udalak gaztetxearen eraikinari beste erabilera bat ematea erabaki zuen. Beraz kontzertuak jotzeko beste gune batzuk bilatu behar ziren. Alde batetik, kanpoko taldeek zein herrikoek herrian jo zezaten eta bestalde herriko taldeek kanpoan jo zezaten. Lehenengo kasurako, inguruko zenbait

9. Mizelioak, hifen masak dira, onddoek elikagaiak eskuratzeko erabiltzen dituzte eta sare modura osatzen dira. Metafora hau erabiltzea egokia iruditu zait, Psilocybe elkarte ere sare modura hedatu baita bere “elikagaiak” eskuratzeko.

diskoteka eta areto erabili ziren, baina ez ziren lekurik aproposenak eta elkar-teak ezin zituen bere modura kontzertuak kudeatu. Bestalde kalean egitea ere erabaki zen, baina kalean egiteak, bai eguraldiarekin zein bizilagunekin arazoak ekarri zitzaizkeen. Bigarren kasurako beste aukera egokiago bat auke-ratu zen, autobusak alokatzea.

Beste herrietan jotzeko garraioa behar zen, bai musikarientzako eta bai instrumentuentzako, baina horretaz gain autobusak entzuleria erama-tea ahalbidetzen zuen, beraz autobusa kontzertuaren artekari bihurtu zen. Kontzerturako beharrezkoak ziren eragile gehienak autobusean zihoazen eta gainera Psilocybe elkar-tea bere mizelioak zabaltzen hasten zen. Jada ez zen paretan artean ematen zen ekintza bat, baizik eta kanpora zabaltzen ari zen ekintza. Era berean kontzertuak antolatzea beste behar batzuetaz ohartzea eragin zuen, beste artekari batzuen beharra, soinu teknikariak.

3.3.2. Teknikariak

Soinu teknikariaren lana baloratzea zaila da, baina musikarako beharrez-koa. Psilocyben dagoeneko bazeuden musikariak eta bazeuden entzuleak, baina ez zegoen teknikaririk. Baina musika sortzeak beti erakartzen ditu musikari lotutako beste ekintzak, horietako bat soinua kudeatzearen ekintza izanik.

Psilocybeko musikari batzuk nolabait ere hasi ziren soinu mahai eraman-garriekin praktikatzen eta beraien kontzertuetako soinuaz arduratzen. Modu horretan hasi ziren soinu teknikariak sortzen elkartean ere. “Beti ahazten dugu espezialistak zaleetatik sortzen direla, soldaduak hiritarrez sortzen diren bezala” (Latour, 2001: 124). Soinuaren munduan barneratu ziren guz-tiak musika zaleak ziren, soinu mahai batekin esperimintatzeko aukera izan zutenak eta harreman berri horietatik sortu ziren entitate berri horiek, soinu teknikariak eta soinu ingeniariak. Entitate berri hauek ez dira bitartekari hutsak, beraien lana musika ahalik eta publiko zabalenera heltzea da, arte-kari-musikariak egiten duen bezalaxe. Honekin duen desberdintasun bakarra, bere instrumentuak soinua egin beharrean soinua eraldatzen duela da.

3.3.3. Diskoak

Baina, behin eta berriro aipatu dugun bezala zenbat eta eragile gehiago harremanean egon orduan eta aktibitate gehiago egongo da. Elkartearen hurrengo pausua zenbait hondakin uztea izango da, beraien ekintzaren ondo-rioz sortutako hondakina, kasu honetan diskoak. Musikariek beraien lana aurkeztu nahi zuten eta beraien lana erregistratu, eta horretarako jadanik ez ziren notak pentagramadun horri batean idatzi behar, objektu batean ida-tzi zitezkeen. Baina horretarako beste artekari tekniko gehiago biltzea behar zen. Horien artean grabagailuak eta multipista estudioak.

Gainera artekari tekniko horiek, nolabait ere, musika sortzaile bihurtzen ziren. Musika erregistratuz musikaria ahalbidetzen zuten bere interpretazioa entzutera eta hau eraldatzera. Era berean, artekari tekniko hauek ahalbide-

tzen zuten interpretazio horiek mozteko eta itsasteko aukera, beraz beraiak ere parte hartzen zuten musikaren eraikuntzan. Azken finean, gizakiok teknologia honekin izandako harremanaren ondorioz, eman da bi artekari hauen izaeran jasandako aldaketa. Hasiera batean grabagailuak erabilera militar baterako sortuak izan ziren, baina hauen erabilera ezberdin baten ondorioz, musika sorkuntzarako teknologia bihurtu ziren.

Beraz teknologia honen erabilpenaren ondorioz elkarteko zenbait taldek beraien lehen diskoa sortu zuten, *Underribi* izeneko diskoa. Hau izan daiteke Psilocybe elkartearen sortze mitoa. Alde batetik, disko horrek gazteek egindako lana udalari aurkezteko balio izan zuelako eta bestalde disko honek beste taldeen sorkuntza eta beste taldeen grabatzeko gogoia suspertu zuelako. Disko horrek kritika ona izan zuen komunikabideetan eta horrek eragina izan zuen udalaren erabakietan.

Nahiz eta talde guztiek estudio batean grabatzeko aukerarik ez izan, talde gehienak saiatu ziren kalitatezko grabazio bat lortzen. Alde batetik, hau baitzen nolabait iraunkortasun bat izateko aukera, hala nola, beraien musika ezagutarazteko aukera ezin hobea. Grabazio hauek beraien kontzertuetan saltzen ziren eta horrek zale gehiago elkartzea suposa zezakeen.

Taldeen grabatzeko gogo horrek sortarazi zuen elkartek berak grabatzeko teknologia erostea pentsatzea, eta horrela izan zen. Teknologia honekin ez zuen inork grabatu, baina beranduago soinu teknikariak bihurtu ziren elkarteko kide askok teknologia horrekin esperimentatu zuten.

Grabazio modura utzitako hondakin hauek materialtasun osagarria eman zioten elkarteari eta baita ere nolabaiteko izaera korporatiboa elkarteko kideei. Erositako grabaziorako multipista ekipoak ez zuen grabaziorako funtzioa bete, baina lortu zuen elkartek helburu komunetan pentsatzen hastea. Jadanik ez zuten interes ezberdinak zituzten elkartutako talde ezberdinen multzo modura funtzionatzen, helburu komunak zituen entitate modura baizik.

Hasierako helburua lokalak lortzea bazen, bigarren helburua beraien aktibitatearen hondakin bat uztea zen. Taldeen luzaroan iraun nahia, kaxabeltzak eraikitzea eraman zien, baina kaxabeltz horiek eraiki ahal izateko elkartetik kanpokoak ziren beste eragileekin elkartzea suposatzen zuen: soinu teknika-riekin, diskoetxeekin, diseinatzaile grafikoekin, argazkilariekin etab.

3.3.4. Diskoetxea eta Identitatea

Baina harreman horiek ez zituzten bakarrik elkarteko taldeek bilatu, diskoetxeek elkartean nolabaiteko harrobia aurkitu zuten. Hori dela eta elkarteko zenbait taldek Euskal Herriko diskoetxe famatuekin diskoak grabatu zituzten. Horrek eragin zuzena izan zuen elkartearen zabalkundeetan, jadanik ez zen Hondarribira mugatzen zen elkarre bat, baizik eta elkarre honetan egindako musika Euskal Herrira zabalduko zen. Azken finean, talde hauen diskoak Euskal Herriko eta Espainiako dendetan zabaltzen ziren eta Euskal Herriko irrati kateetan entzuten hasi ziren. Gainera talde hauei egindako elkarriketa guztietan Psilocybe elkartearen izena entzuten zen. Horrek elkar-

teko kideen artean nolabaiteko identitate bat eratzea ahalbidetu zuen. Modu batean ala bestean, elkarteak antzeko gustu musikalak zituzten zenbait gazte elkartu zituen musika egiteko asmoz. Frith-ek dioen bezala, “gure aukera musikalak satisfazio pertsonalak aurkitzeaz haratago doaz, musikak komunitate zehatz batekin lotzen baikaitu” (Frith, 2001: 69).

Baina identitatea ez da iraunkorra, berrindartu behar da iraun dezan, kontratu jarrai baten beharra du batasun ideia hori mantendu ahal izateko. Eta zenbait urte eta gero musikaren praktikaren eta gustuaren inguruan sortutako komunitate hori une delikatu eta ahul batean aurkitzen zen. Elkartea sortu zuten talde askok eta kide askok elkartea utzi zuten eta sartu berri ziren kide eta talde gehienek ez zuten identitatea eta komunitate ideia barneratu.

Hori dela eta elkarteko kide zaharrenek elkarteko taldeen artean grabatutako disko bat kaleratzea pentsatu zuten, baina ez beste diskoetxe batekin, baizik eta beraien diskoetxe propioarekin. Horrek elkartearen zabalkuntzan eragin handia izan zuen, ez bakarrik beraien diskoetxe propioarekin kaleratzeak suposatzen zuenarengatik, baizik eta diskoetxe bat sortzeko eratu behar zen harreman sarengatik. Harreman sare horretan, nola ez, entzuleri bat zegoen.

Entzuleriak ere badu zer esana musikaren sorkuntzan eta komunitatearen ideiarekin, azken finean, “musikak antzeko erantzun fisikoak sortzen ditu pertsona ezberdinen gain momentu berean eta horrek taldearen elkartzea bultzatzen dezake eta batasun sentsazioa sortarazi” (Storr, 2002: 45). Nolabait ere entzuleri horrek, iritzi publikoaren funtzioa bete zuen, Psilocybe elkartearen existentzian eta sorkuntzan, baina era berean eragin handia izan zuen merkatuaren eta erakunde publikoen jokatzeko eran. Publiko hori izan baita Psilocybe taldeen abestiak eta diskoak entzun nahi zituena eta era berean publiko horrek udalari eta beste erakunde publikoei, *rock* kontzertuak antolatzeko diru-laguntzak eta taldeentzako entsegu lokalak eskatuko dizkie.

3.4. Psilocyberen zabalkundea

Harreman guzti hauek ez dira errazak izan, eragile askok hartu du parte elkartearen eraikuntzan eta are gehiago, elkartearen bitartez musikaren inguruan sortutako sarean. Zenbat eta harreman gehiago sortu, zenbat eta zailagoa da adostasuna lortzea. Baina Psilocybe elkartearen etengabeko ekintzek nolabait harreman sarean egonkortasuna egotea lortu zuten. Batez ere erakunde publikoekin, hauek baitzuten elkartea deuseztatzeko edo bultzatzeko boterea. Nahiz eta elkartearen eta udalaren artean harremanak onak ez izan elkartearen lehen hamar urteetan, denboraren poderioz hobetuz joan ziren. Psilocybek bere 10. urteurrena ospatzeko kontzertu handi bat antolatzea pentsatu zuen, eta horretarako udalari diru-laguntza eskatu zioten. Udalarekin harremanak onak ez izan arren, antzinean baino askoz hobeagoak ziren eta kontzerturako 6.000 euroko diru-laguntza lortu zen. Kontzertu horrek sekulako arrakasta izan zuen, batez ere elkartea sortu zuten talde gehienek eta elkarteko talde ospetsuenek jo zutelako. Bi mila pertsona inguru elkartu ziren

kontzertu hori ikusteko eta horrek, modu batean edo bestean, udal erakundearen eragina izan zuen.

E.9.Z: Bat batean horrelako gauza bat ematen da, non bost, hamar, hamabost pertsonen artean lortzen dute udalak inoiz lortu ez duena, naiz eta munduko diru guztia gastatu talderik famatuena ekartzen. Horrelako gauza batek beti pizten du alarma argiren bat bulegoren batean.

Harreman horien hobekuntzan eragina izan zuen Psilocybe elkartearen arrakastak, baina baita bere kideek lortutako heldutasunak. Ohartu ziren erakunde publikoekin borrokan egiteak ez zuela laguntzen beraien helburuen lorpenean, beraz borrokarako jarrera alde batera utzi zuten eta lankidetzarako jarrera erakustea erabaki zuten. Ordurako Psilocybe elkarteari bultzada bat ematea ez zen elkartearen proiektua bakarrik, erakunde publikoena ere.

E.5.J: Hombre, Psilocybe hazi da, helduagoa da. Urte asko dira kolektibo bezala, ekintza mordoa antolatu ditu eta badu esperientzia bat.

E.10.M: Bien arteko gauza da, beraiek orain elkarteak funtziona dezala nahi dute, baina aldi berean Psilocybe elkartearen eta Udalean dagoen jendea aldatu da.

Ordu ezkerro, Psilocybe elkartearen helburu bakarra ez zen taldeentzako lokalak eskuratzea eta kontzertuak jotzea eta antolatzea. Helburu berria diskoetxe bat sortzea eta kontzertu areto bat eraikitzea zen eta horretarako orain arte eraturako harreman sarea hedatu behar zen. Garai horretan teknologia berriek lana asko erraztu egiten zuten, urte batzuk lehenago imajina ezina zena.

E.10.M: Lehen gauzatzea asko kostatzen zuten gauzak orain berehala egiten ditugu. Egia da orain baliabide teknologiko hobeagoak daudela eta diru gehiago eskuragarri.

Bai prezioan eta bai erraztasunean diskoak grabatzeko aukerak asko hobetu ziren aurreko hamarkadan eta jadanik elkartearen barruan kide asko teknologia hori erabiltzeko gaitasuna garatua zuten, teknologia horrekin izandako harremanaren ondorioz. Baina guzti hori lortzeko lan handia egin behar zen. Lehenagotik egindako lana hor zegoen, antolatutako kontzertu guztiak, talde ezberdinak kaleratutako diskoak eta maketak, elkarteak kaleratutako disko kolektiboak, etab. Baina mundura zabaltzeak, lan handiagoa suposatzen zuen. Alde batetik instituzioen oniritzia eta finantziarioa behar zen eta bestetik elkarteko kideen nolabaiteko konpromisoa eta profesionaltasuna. Amateur izatetik profesionaltasunerako bidea jorratu behar zen. Hori izan zen elkartearen erronka nagusia.

Bat batean, gelditu eta pentsatu beharra zegoen zein izango zen elkartearen helburua etorkizunean, diskoak grabatzen ziren, DVD-ak ekoizten ziren eta omenaldi kontzertuak egiten ziren, baino aurrerapauso bat emateko garaia zela uste zuten elkarteko kide batzuek.

E.11.S: Ba nik uste dut berrinterpretatu behar dugula gure izaera, hurrengo urteetan zer izan nahi dugun ikusteko. Azken urteotan gure historiaz baliatu gara bizi-rauteko, batez ere azken bi-hiru urteetan, *revival*ak egiten edo oroitzapenezko diskoak kaleratzen.

3.4.1. Profesionaltasunerako bidea

Elkartea ez zen dagoeneko musika egiteko leku bat behar zuten nerabeen elkarte, baizik eta 25 edo 30 urtetik gorako musikari eta musikazaleen elkarte. Kideen lehenetsunak aldatu ziren eta behar berriak sortu ziren. Taldeek bere musika grabatzeko aukera izan nahi zuten modu merke eta egoki batean, lokalen ordutegiaren antolakuntza hobea nahi zuten, azken finean, profesionaltasun handiagoa nahi zuten. Jadanik ez zuten “musikari ezkutua” (Finnegan, 1989) izan nahi, musikari amateurrak izateko musikari profesionalak izatera pasa nahi zuten. Ordurako Psilocybe elkarteko zenbait kidek bere zaletasunaz ofizioa egin zuten. Elkarteko lokalak, beraien laborategia bihurtu zen eta bertan ikasitako ofizioa, beste enpresa batzuetan jarduten zuten. Elkartean hainbat eragilerekin izandako harremanak entitate berrietan bihurtaraztea suposatzen zuen elkarteko zenbait kiderentzat. Musikaren negozioarekin zer ikusia zuten entitateetan bihurtu ziren, diseinatzaile grafikoak, argazkilariak, musika eragileak, etab. Baina guzti horiek elkartetik kanpo egiten zuten lan eta elkarteak emandakoak beste eragile batzuk baliatzen ziren. Profesionaltasunerako bidea jorratu behar zen eta horretarako elkarteko zenbait kidek bere¹⁰ begiak beste lurraldeetan jarri zituzten, Europako hiriburuetan, AEBko hiri garrantzitsuetan.

Argi zegoen elkarteak ezin zuela diskoetxe handiekin lehiatu ezta esku pribatuetan dauden kontzertu aretoekin, baina horrek ez zuen esan nahi bere lana ezin izango zutela mundura zabaltzeko beste bide batzuk erabiliz. Noski, “zabalkuntzarako ohikoak ez diren beste bide batzuk erabiltzeko desabantailak eragiten ditu eta beraien lanak forma ezberdina hartzen du, ohiko bideetatik zabaldua den lanarekin konparatuta” (Becker, 1982:6), baina horrek ez du esan nahi egin ez daitekeenik. Baliabideak ez ziren berdinak, baina gaitasunak antzekoak izan zitezkeen eta horretaz ohartzeak bultzatu zituen elkarteko kideak proiektu berri bat eraikitzen. Proiektu hori beraien diskoak grabatzearekin hasia zen, modu batean ala bestean, baina helburua zen diskoetxe bat sortzea, irrati kate bat egitea eta kontzertu areto bat kudeatzea. Gazte hauek, denbora luzean kudeatzen hasiak ziren horrelako ekintzak, baina ez elkartearen barruan eta ez elkartearen izenean. Hori dela eta, elkarteko kide helduenek elkartearen etorkizunean pentsatzen hasi ziren, elkartearen lehen hamar urteak ikusi eta gero, hurrengo hamar urteetan zer izango zen pentsatzen.

10. Elkarteko “duta” taldeak Fermin Muguruzarekin disko bat grabatu eta munduan zehar biran egona zen eta Karlos Noain (elkarteko kidea) bere musika ikasketak burutzera New Yorkera joana zen. Kide hauek eta beste batzuek jasotako esperientziak oso baliagarriak izan ziren proiektu berriari ekiteko.



1go. ir. 2006ko irudia, bertan ikus daiteke elkartearen eraikina kontzertu aretoa eraiki baino lehen. Horiz margotutako zatia, taldeen entsegu lokalak dauden zatia da.

Elkartea udalak eskainitako eskola zahar baten eraikinean kokatuta dago. Garai horretan elkarteak eskolaren eraikinaren erdia suposatzen zuen bakarrik, beste erdia lan hezkuntzarako erakunde batek erabiltzen zuen, iturgintza, igeltserotza, etabarreko ikastaroak emateko. Baina erakunde honek eraikinaren beste erdi hori utzi eta elkarteko zenbait kideri bururatu zitzairen beste erdi hori erabili zitekeela elkartearen proiektu berrirako. Proiektu berri horretan, kontzertu areto bat, grabazio estudio bat eta irrati bat sartzen zirelarik. Horrekin batera taberna txiki bat sartzen zen, kontzertuetan dirua lortzeko asmoarekin. Baina helburu hori betetzeko dirua behar zen eta diru hori bakarrik erakunde publikoek eskaini zezaketen eta horretarako proiektu bat aurkeztu behar zitzairen. Baina nola lortu zezaketen proiektu erakargarri bat dirutza gastatu gabe?

Garai horretan, elkarteko kide askok ofizio ezberdinetan jarduten zuten, denetatik aurkitu zitekeelarik. Arkitektoak, igeltseroak, argiketariak, iturginak, tabernariak, soinu teknikariak, estudio teknikariak, diseinatzaile grafikoak, etab. Eta denen artean sortu zuten proiektu berri eta erakargarri bat eta udalari aurkeztu ziotena. Musikaren sarea etengabe zabaltzen zen eta hasiera batean jotzeko aukera lortzeko eraturako sarea musika industrian murgiltzeko sarean bihurtzen ari zen. “Azken finean musika ekintzak, artistikoa den heinean, beste eragile askoren laguntza behar du, beste edozein giza ekintza bezala” (Becker, 1982: 6).

Baina horretarako aldaketak eman behar ziren eragile ezberdinen harremanetan, eta horrela izan zen. Latour-ek dioen bezala, “harreman honen exis-

tentzia aktoreek egin dutenari edo egiteaz utzi diotenari baldintzatuta dago” (Latour, 1999: 106), eta kasu honetan erlazonaturik zeuden bi aktore hauek egiteari eta egiten uzteari ekin zioten.

E.11.S: Jainkoari esker, uste dut ikustarazi egin diogula administrazioari, ez dagoela inolako arazorik espazio bat uztearekin, espazio horretaz arduratuko den jende bati. Bueno, beti egon behar du kontrol minimo bat. Orduan nik uste dut nolobait ere instituzioak hezi ditugula eta zentzu berean gu geu ere hezi gabela. Gobernu zentraletik, Eusko Jaurlaritzatik, Foru Aldunditik, Udaletik edo herriko edozein negoziotik datorren dirua ongi etorria dela eta gainera askotan diru publikoa dela. Beraz, zergatik ez diru horretatik musikaren hedapenera zuzendu? Nik uste dut zentzu horretan lan ona egin dela, udalak, zenbait liskar txikiez gain, ulertu duela elkarre serio bat gabela eta horrek ulermena errazten du.


E.12.X: Bai, baina nik uste dut denak gabela partaide, hau hiri proiektu bat da, hau da denetatik egon behar du; gizartearen bultzada, laguntza ekonomikoa, etab. Musikariak dira garrantzitsuena, beraien laguntzaileak eta ekoizleak; hau da, lokalak garbitzen dituenarengandik hasita, kanpoan musika entzun ez dadin “hueverak” jartzen dituen arte, beraz guztiona da. Hondarribiko talde batek arrakasta lortu ahal izateko jende asko pasa behar izan da handik. Hau da Psilocybe proiektua bururatu zitzaion horrengandik hasita, proiektuan parte hartu zuen lehen zinegotzia arte, eta zergatik ez, oraingoa ere. Baina guztiak gara proiektuaren parte, baita entzuleria ere, batez ere herriko entzuleria.

4. PSILOCYBENEA, PSILOCYBINA¹¹, PSILOCYBE IRRATIA

2006. urtean hasi ziren udala eta Psilocybe elkartearen proiektu berriari ekiten. Proiektua, prestatzerako orduan zenbait lan talde antolatu ziren, hauekako bakoitzak proiektuari zegozkion eremuez arduratuko zelarik Elkarteko edozein kidek parte hartu zezakeen talde horietan. Horretarako zerranda batzuk egin ziren jendeak bere izena idatzi zezan. Hasiera batean elkarteko kide gazteenak ez zuten bere izena idatzi zerrendetan baina, proiektua aurrera zihoala ohartzean eta beraiek ere proiektu horren zati izan zitezkeela ohartzean, talde horietan txertatu ziren. Lan taldeak eratu zirenean, hauekako bakoitzak bere lan taldeari zegozkion proiektuaren zatia idatzi behar zuen eta bere lan ildoak zeintzuk izango ziren adierazi behar zuen. Nagusia eraikinaren antolakuntzari zegozkiona zen, eta horretan elkarteko kide ziren arkitektoek hartu zuten parte¹². Horrekin batera, talde administratiboa, kontzertu programazio taldea, estudioaren kudeaketa eta soinu teknikarien taldea, mantenu taldea, irratia kudeaketa taldea eta tabernaren kudeaketa taldea eratu ziren.

11. Psilocybina elkarteko diskoetxearen izena da.

12. Hauekin batera elkarteko kide baten arkitektura estudioak hartu zuen parte.



2. ir. Kontzertua aretoa eta grabazio estudioaren bista. Goiko irudian ikus daitezke nola eskuin aldean hiru entsegu lokalak dauden eta ezkerrean kontzertu aretoa izango dena. Erdian ordea bi solairu ikusten dira. Goikoa bulegoa eta grabazio teknikariaren gela izango dira. Beheko aldean grabazio gela, taberna eta komunak. (Santiago Noainek eskainitako irudia, 2006).

Horrela, 2008aren Urriaren 4ean atek ireki zituen Psilocybenea eraikinak. Proiektuan Udalak 620.000 euroko diru-laguntzaz berritutako eraikinak atek irekitzen zituen rock musikaren zabalkuntzarako. Helburua espazioari bizia ematea zen, hileru bi kontzertu emanez eta Foru Aldundiko Gaztemaniak proiektuarekin harremanak sortzea. Horrek suposatzen zuen herriko mugak gainditzea eta Gipuzkoako lurraldearen mugetara zabaltzea. Jadanik ez zen herriari zegokion proiektua soilik, lurraldekoa baizik. Elkarteko kideen asmoa, lurraldean erreferentean bihurtzea zen eta horretarako goi mailako taldeak ekarri behar ziren, baina baita lurraldeko eta herriko taldeei aukera eman. Horrela Hondarribiko gazte batzuen asmo indibidualari esker hasitako proiektua, Gipuzkoa osora eta Euskal Herrira zabaltzen zen proiektu kolektibo batean bihurtu zen.

Bost urte pasa dira Psilocybenea proiektuak bere atek zabaldu zituenetik, ezkerrean 128 kontzertu eta hainbat ekintza sortu dira, 23 disko eta DVD kaleratu dira, bai elkarteko taldeenak baita kanpoko kolaboratzaileenak ere. 20 taldek entseatzeko dute elkarteko entsegu lokaletan gaur egun, baina elkartean 20 urteetan beste 26 talde egon dira eta urtero talde berri bat sortzen da. Elkartek web orri bat du eta bertan elkartean irratiko programak entzun daitezke eta elkartearekin zerikusia duten berri guztiak ikus daitezke, baita elkartean historiarekin zerikusi duen hainbat informazio.



3. ir. Proiektuaren maketaren irudia. Bertan ikus daiteken eraikin zirkularra, irudiaren ezker aldean, irratria eta taldeen aldageletara zuzendutako eraikina da. (Santiago Noainek eskainitako irudia, 2006).

Elkartearen etorkizuna oparoa da, musikak bere sareak etengabe zabalzen dituelako, gainera elkartearen indarra bere irabazi asmorik gabeko izarran datza. Inork ez du dirua irabazten elkartearentzako egiten duen lanagatik, baina etekin handiak lortzen ditu. Gainera, elkarteko kide izateko jadanik ez da beharrezko musikaria izatea edo musika jotzea, musika bere zentzu zabalenean sortzeko gogoia nahikoa da eta horrek eragin zuzena izan du musika jotzen ez duen jende asko elkartera hurbildu dadin. Azken finean musika egiteko eragile asko behar baitira.

5. ONDORIOAK

Elkartearen arrakasta ez da kasualitatea izan, ezta gazteen musika jotzeko gogoaren ondorioa. Elkartearen arrakasta eragileen sare bat eraikitzean datza, horrek ahalbidetu baitu bere zabalkundea. Baina ezin dugu ahaztu horrelako sare batek arrakasta eduki dezan erakundetze maila bat behar dela, nahiz eta erakundetze maila hori denborarekin erakunde propioaren mugak gainditu.

Psilocybe elkartearen kasuan eraikinaren zati batekin kontatzeak nolabaiteko erakundetze maila bat ematen zien, kideen funtzioak egituratzera behartzen zielarik, ez bakarrik musika sortzeko, baizik eta zentzu zabalenean musika eraikitzeko. Hau da musikaren munduari lotutako eragile guztiekin harremanetan jartzeko. Era berean, erakundetze maila horrek nolabaiteko

boterea ematen zion elkarteari. Potentzialki ekoizpen eta antolakuntza gaitasun handiago zuen elkarte bezala lortutako materialtasunari esker.

Horrekin batera elkarteko kideek material ezberdinekin izandako harremanek sortutako efektuek eta hauek hartutako sare konfigurazioak existentzia ezberdin bat eman dio elkarteari. Elkartearen abilezia elkarteko kideentzako konfigurazio egokia aurkitzean datza, ez bakarrik musika entseatzeko aukera ematea, baizik eta kanpoko eragileekin harremanak eratzeko aukera ematea, musika eragile global bat sortzeko aukera emanez. Beraz, efektu lokalak izan ditu, hala nola, herriko musikariak sortu eta bildu, baina era berean, muga lokalak gainditu ditu eta kanpoko eragileekin harremanak izan ditu, globaltasun efektuak sortuz.

Beraz, elkarte ez da musikarien elkarte soil bat, musika sorkuntzarako zentro bat da eta horretarako era guztietako baliabideak behar dira. Artekari teknikoak eta giza artekariak eta hauek askotan ezin dira aldi berean erakinean aurkitu. Horrek eragin du elkartearen izaera aldatzea eta Institutio bat izatetik extituzio (Domènech eta Tirado, 2001) bat izatera pasatzea. Hau da, elkarte osatzen duten eragile ezberdinen, denboran eta espazioan bat egin gabe, elkarreteragina ahalbidetzen duen entitatea. Eraikuntzaren materialtasun gogorra, gaur egungo teknologiarekin izandako harremanekin materialtasun malgu bat izatera pasa da. Eraikina kalkulu zentro bilakatu da, harreman guztiak bertan egituratzen direlarik, baina horrek ez du esan nahi ekintza bertan eman behar denik. Garai batean harreman guztiak elkarteko eraikinean ematen ziren eta elkarteko kideen artean. Gaur egun, elkarte zabala da, mundura zabaldu da, antolakuntza era ezberdinak egituratuz, harreman berriak egituratuz eta herriko mugak gaindituz. Psilocybearen mizelioak zabaldu egin dira, kontzertu aretoaren izena munduko zenbait talderen biretan agertzen da, irratia internet bitartez mundu osora heltzen da eta horrekin batera elkartearen sortzen den musika. Elkartearen ontologia aldatu egin da.

Beraz Psilocybe ez da jadanik Hondarribiko musika taldeen elkarte, Psilocybe mundu zabalera heltzeko sortu den "extituzioa" da. Jadanik ez da beharrezkoa Psilocybe kideak espazio eta denbora koordenada berdinetan aurkitzea, beraien espazio eta denbora koordenadak heterogeneoak dira. Horretan zerikusi handia izan du teknologia berrieekin ezarritako harremanak eta hauen inguruan egindako erabilera. Institutioak nolabait barnean egotera behartzen bazituen elkarteko kideak, extituzioak kideak kanporatu eta konektatu egiten ditu. Institutioa lokala da, extituzioa ordea globala.

BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK

ADORNO, Theodor (2009). *Disonancias. Introducción a la sociología de la música*. Madril: Akal.

BECKER, Howard Saul (1982). *Art worlds*. Los Angeles: University of California Press.

BLACKING, John (2006). *¿Hay música en el hombre?* Madril: Alianza.

Alcaraz Franganillo, Egoitz: Psilocybe: Onddoaren mizelioak herritik mundura hedatzen direnean

- BOUURDIEU, Pierre (1999). *La Distinción. Criterio y bases sociales del gusto*. Madrid: Taurus.
- CAGE, John (1999). *Escritos al oído*. Murcia: Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos de la región de Murcia.
- DOMENECH, Miquel eta TIRADO, Francisco Javier (2002), "Lo virtual y lo social". In: *Athenea Digital*, 1 zkia; or. 1-10.
- FINNEGAN, Ruth (1989). *Hidden musicians. Music-making in an English town*. Cambridge: Cambridge University Press.
- FRITH, Simon (2001). "La industria de la música popular". In: *La otra historia del rock*. Bartzelona: Robinbook. or. 53-85.
- GARCIA SELGAS, Fernando J. (2007). *Sobre la fluidez social. Elementos para una cartografía*. Madrid: Centro de investigaciones sociológicas.
- GRIGNON, Claude; PASSERON, Jean Claude (1992). *Lo culto y lo popular*. Madrid: Ediciones de la Piqueta.
- HENNION, Antoine (2002). *La pasión musical*. Bartzelona: Paidós.
- LATOUR, Bruno (2001). *La esperanza de Pandora. Ensayos sobre la realidad de los estudios de la ciencia*. Bartzelona: Gedisa editorial.
- (2005). *Reensamblar lo social. Una introducción a la teoría del actor red*. Buenos Aires: Manantial.
- SMALL, Christopher (1994). *Music of the common tongue*. New York: Riverrun Press Inc.
- STORR, Anthony (2002). *La música y la mente. El fenómeno auditivo y el porqué de las pasiones*. Bartzelona: Paidós.
- WILLIS, Paul (1990). *Moving culture. An enquiry into the cultural activities of young people*. Londres: Calouste Gulbenkian Foundation.

GEHIGARRIAK. ELKARRIZKETA ZERRENDA

ELKARRIZKETA	AZALPENA
1. Elkarrizketa	Elkartearen hasieran parte hartutako gazte bati burututako elkarrizketa. Gazte honek Euskal Herriko talde ospetsu batean jo zuen eta Psilocybek diskoetxe bezala kaleratu zuen lehen diskoaren kudeatzailea. Gazte hau, Psilocybe irratitari hasiera eman zion elkarteko kidea da.
2. Elkarrizketa	Elkarreak hamar urte lanean zeramatzanean elkartera sartutako kide bati burututako elkarrizketa. Gazte honek elkartean musika elektronikoa egiten hasi zen kideetako bat da eta DJ modura ere jardun du.
3. Elkarrizketa	Elkartearen hasieran parte hartutako gazte bati burututako elkarrizketa. Gazte honek Euskal Herriko zenbait talde ospetsuenetan jo du eta argazkilaria modura jardun du, elkarteko zenbait talderentzako argazkiak atereaz. Gaur egun Euskal Herriko talde ospetsuenetako batean jotzen du.
4. Elkarrizketa	Elkartera 2004 sartutako gazte bati burututako elkarrizketa. Gaur egun elkartearen kontzertuetarako kartelen diseinatzailea da eta elkartearen web orriaren kudeatzailea.
5. Elkarrizketa	Elkartearen hasieran parte hartutako gazte bati burututako elkarrizketa. Gazte honek Euskal Herriko zenbait talde ospetsuenen partaide izan da eta Esan Ozenki eta Metak diskoetxerako lan egin zuen. Gaur egun Euskal Herriko talde ospetsu batean jotzen du.
6. Elkarrizketa	Elkartearen hasieran parte hartutako gazte bati burututako elkarrizketa. Gazte honek Euskal Herriko talde ospetsu baten parte izan zen urte askotan eta orain Psilocybe Irratiko programa bat zuzentzen du.
7. Elkarrizketa	Elkartearen hasieran Hondarribiko udalaren kultura zinegotzia izan zenari burututako elkarrizketa.
8. Elkarrizketa	Urte askotan elkarteko kide izandako gazte bati burututako elkarrizketa. Gazte onek Oihuka diskoetxearentzako lan egin zuen eta elkartearen diskoetxearen sortzailea izan zen. Gaur egun kontzertu eragilea eta taldeen managerra da.
9. Elkarrizketa	Esan Ozenki eta Metak diskoetxetan lan egindako langile bati burututako elkarrizketa. Gaur egun Euskal Herriko zenbait talderen managerra da.
10. Elkarrizketa	2006. elkarteko lehendakaria zenari burututako elkarrizketa. Gazte honek Euskal Herriko zenbait taldetan parte hartu zuen eta soinu teknikaria zen. Pasaden urtean kotxe istripu baten ondorioz hil egin zen, bere taldearekin kontzertu bat jotzera zihoanean.
11. Elkarrizketa	Elkartearen hasieran parte hartutako kide bati burututako elkarrizketa. Kide honek eta bere arkitektura estudioak diseinatu zuten Psilocybenea proiektua. Elkartearen profesionaltasunaren bultzatzailetako bat izan zen. Gaur egun oraindik elkarteko kidea da eta bere taldearekin kontzertuak jotzen jarraitzen du.
12. Elkarrizketa	2006. urtean Hondarribiko udalaren kultura zinegotzia zenari burututako elkarrizketa. Zinegotzi honen garaian onartu zen Psilocybenea proiektua.